

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 24ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

10-URUMEA IKASTOLAREKIN ZUZENEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA

Hitzarmen honen xedea da URUMEA IKASTOLAK Lehen Hezkuntzako ikasleak naturara hurbiltzeko eta euskara gaitasuna indartzeko curriculum proiektuko EUSKARA ETA EUSKARA ARRAKALARI AURRE EGINAZ egitasmoa gauzatu ahal izateko dirulaguntza ematea.

Urumea Ikastolak egoera sozioekonomiko zaugarria duten familietako ikasle tasa oso handia du. Horren ondorioz, arazo handiak ditu eskolaz kanpo egitekoak diren curriculumeko proiektuak gauzatzeko, izan ere, familia horiek ezin diote horrek dakarren gastuari aurre egin.

Aurkeztu duten egitasmoa horietako bat da, hain zuzen ere, ikasleak naturarekin harremanetan jartzea helburua duena; honako helburuak ditu:

1. Helburu zientifikoa: Ikasleek bertako animalia eta landareen ezagutza areagotzea, bertatik bertara naturarekin harremanetan; hau da, teoria eta praktika uztartuta.
2. Helburu emozionala: Ikerketek diotenari jarraiki, ikasleak naturarekin harremanetan jartzea dakartzan onura emozionalez gozatzea.
3. Hizkuntza helburua: Baserri eta landa eremuan, ikasleek, eskola-eremutik kanpo, ikasleen euskara modu natural eta atseginean entzun eta praktikatzeko aukera izatea; eta horrek dakarren hizkuntzarekiko atxikimendua areagotzea.

Ikastolak aurkeztu dituen zaugarritasun datuak aintzat hartua, erraz ulertzen da ikasle horiek direla naturarekin eta euskararekin harremanetan egoteko aukerarik txikiena dutenak, eta, aldi berean, premiarik handiena dutenak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 10.000,- €

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen Batzordeak 2024ko irailaren 19ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, **hau erabaki da aho batez**

1.- Urumea Ikastolarekin zuzeneko dirulaguntza hitzarmena onartzea

2.- 2024. ekitaldiko udal aurrekontuaren Dirulaguntza Eranskinean eta Dirulaguntzen Udal Plan Estrategikoan aldaketa hau jasotzea:

Diru-laguntza. Onuraduna eta objektua.	Norgehiagoka/ Zuzena	Kopurua €
URUMEA IKASTOLA. Hitzarmen bidezko dirulaguntza. II.lerro estrategikoa. Hezkuntzaren sustapena. 2.1 helburua. IV. lerro estrategikoa. Euskararen sustapena. 4.3 helburua.	Zuzena	10.000

Dirulaguntza hitzarmenean jasota dagoen ordainketa moduan eta epeetan egingo da:
Dirulaguntza onartutakoan %75eko ordainketa eta justifikazioa aurkeztutakoan %25a.

KONTUSAILA.- 1 02.481.03.323.00 2024 -7541- URUMEA IKASTOLA

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko irailaren 25aan

Aitor Iztueta Garaikoetxea

Hernaniko behin behineko udal-idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUf4be2eea-4ea0-40bb-b982-2e581f32c18a**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>